

III. EUSKAL KOSTA KROSA ERDI MARATOI LASTERKETA 2019

HISTORIA PIXKA BAT

Lasterketaren jatorria

Euskal Kosta Krosa sustatzeko ideiaren jatorria: “Zumaiako Udal teknikariek Zakila Bira eguneratzeko beharra azaldu zuten. Horren aurrean kontuan hartu zen lasterkari asko ibiltzen dela Kostako errepidean entrenatzen. Gainera, Kostako udalek eta Urola Kostako Udal Elkarteak bailara mailako proba bat bultzatzea egoki ikusi genuen, era horretan gure kostaldea ezagutaraziz eta gure bailarari balio erantsi bat emanaz”.

Euskal Kosta Krosa lasterketa ibiltaria da, Kostako bost udalek bat eginda, Urola Kosta Udal Elkartearen bidez. Hau da, probak edizio bakoitzean udalerri batean irteera eta bukaera izango du. 2017an lehen edizioa Zumaian, bigarren edizioa Zarautzen eta hirugarrena Getarian. Gure bailara eta kostaldea balio askokoa izanik, baliabide eta ingurune zoragarriak eta kirola oinarri hartuta, indarrak batuz, kalitatezko kirol proba bat antolatzea da helburua.

LASTERKETAREN EGUNA

2019ko irailaren 28a

- Lasterketaren ibilbidea kostaldeko N-634 errepidean egingo da, maratoki erdiaren distantzian GETARIA, ZUMAIA, GETARIA, ZARAUTZ eta GETARIA.
- Distantzia: 21.097 m.
- Irteera Getarian, arratsaldeko 17:00etan.
- Helmuga Getarian
- Urola Kostako Udal Elkarteak antolatuta

III EUSKAL KOSTA KROSA kirola eta kultura uztartzen dituen egitasmo bat da. Kirola egitea bultzatzea eta kultur aldetik Zarautz, Getaria eta Zumaia udalerrien arteko harremanak indartzea du helburu.

III EUSKAL KOSTA KROSAk kirol proba herrikoia eta familia girokoa izatea du asmoa. KOSTA KROSArekin bailarako udalerrien arteko lotura erakutsi nahi dugu. KOSTA KROSArekin kirol giroan, lagunartean eta familian asteburu eder batez gozatzeraz gonbidatuz, asteburu berezi bat eskainiz.

ARAUDIA

III EUSKAL KOSTA KROSA 2019

1. artikulua

Probaren izena

III. EUSKAL KOSTA KROSA

Zarauzko, Getaria eta Zumaiako udalek, Urola Kostako Udal Elkartearen laguntzarekin, antolatzen dute III. Euskal Kosta Krosa Maratoi Erdia.

2. artikulua

Ibilbidea

Lasterketak 21,097 kilometroko distantzia izango du, errepidean.

Ibilbidea: Getarian irten eta Zumaiatik igaro ondoren, berriro Getariatik pasaz Zarautza iritsiko da, ondoren berriro Getarian amaituz.

- III. Euskal Kosta Krosa-Maratoi Erdia irailaren 28an jokatu da, 17:00etan hasita.

3. artikulua

Denboraren kontrola

Probaren ibilbide osoa egiteko gehieneko denbora 2 ordu eta 30 minutukoa izango da.

4.

artikulua

Izen-ematea, egutegia, dortsalak jasotzea.

Probako parte hartzaile guztiek dortsal ofiziala izan beharko dugu. Dortsala izena emanda eta parte hartzea ordainduta lortu daiteke honako Interneteko atariaren bidez <http://www.kronoak.com/eu>

Izen-ematearen egutegia eta prezioak:

Izen-ematea:

- Abuztuaren 31 bitartean, 20 euro.

- Irailaren 1etik irailaren 24ra (23:59 h) bitartean, 25 euro.

Behin izen-ematea eginda, ezingo da itzultzeko eskatu, ezta titularra aldatzeko ere.

Informazioa:

<http://www.euskalkostakrosa.eus/> eta <http://www.kronoak.com/eu>

info@euskalkostakrosa.eus

5. artikulua

Erantzun Zibileko aseguria

Antolakuntzak, indarrean dagoen legediak agindu bezala, erantzun zibileko eta istripu aseguruak izango ditu.

Kirolari bakoitzak egun bakarreko istripu aseguria ere izango du.

6. artikulua

Sailkapena

Proba bukatzen duten parte hartzaile guztien sailkapena osatuko da, egindako denborak kontuan hartuta.

Kategoriak honakoak dira:

- **Absolutuen maila:** 16 urtetik gorakoek parte hartzeko aukera izango dute:
 - * Juniorren maila: gizonezkoak eta emakumezkoak: 16-19 urte artekoak.
 - * Beteranoen maila: gizonezkoak eta emakumezkoak: 40 urtetik gorakoak.
- **Bailarako udalerri bakoitzetik sailkatutako lehenengoa:** Zumaia-Getaria-Zarautz-Aia-Orio.

Sailkapenerako 2019ko abenduaren 31n parte hartzaileak izango duen adina kontuan hartuko da.

7. artikulua

Dortsala nola jarri

Bularraldean jarri beharko da dortsala, dortsalaren zenbakia eta babeslea agerian direla. Dorsalak txipa erantsita eramango du.

8. artikulua

Antolakuntza, lasterketa eta anoa postuak.

Lasterketa ordenean eta zuzen joan dadin beharrezko guztia egingo du antolakuntzak.

Proba ondo joan dadin kontrolatuta egongo da, Gurutze Gorriak parte hartuko du osasun asistentzia egiteko. Probaren ibilbidean boluntarioak egongo dira lanean.

Hainbat anoa postu jarriko dira lasterketaren ibilbidean: 6,5., 12,5. eta 16,5. kilometroetan eta helmugan.

9. artikulua

Ekipajea uzteko kontsignak

Parte hartzaileek arropa Getariako Berdura Plazan utzi dezakete, udaletxe alboan. Poltsak itxita utzi beharko dira, eta dortsalarekin batera emango den zinta itsasgarria jarrita. Motxilak utzitako tokian jaso beharko dira. Dortsala erakutsi gabe ezingo da motxilarik jaso.

10. artikulua

Antolakuntzak parte hartzaileen zintzotasuna eta kiroltasuna kontuan hartzen ditu, horiek kirolaren arauak errespetatu behar dituzte, hala proba kanpoko laguntzarik gabe eta ahalegin propioz egin beharko dute. Era berean, gainontzeko parte hartzaileak errespetatuko dituzte, besteei minik eta eragozpenik egin gabe.

11. artikulua

Irteera gunea

Probak irteera Getariako frontoian izango du, eta hesien bidez egongo da mugatuta. Beraz, parte hartzaileek irteerara atzeko aldetik sartu beharko dute.

12. artikulua

Sariak

Sari banaketa helmugarako antolatutako gunean egingo da, 19:30etik aurrera. Honako sailkapenak kontuan hartuta banatuko dira sariak:

Sariak: gizonezkoak eta emakumezkoak:

1. Txapela, 300 euro eta saria.
2. 200 euro eta saria
3. 100 euro eta saria

Sariak maila bakoitzeko lehen sailkatuei emango zaizkie, gizonezkoei zein emakumezkoei.

- Udalerriak lehen sailkatuen sariak gehitu daitezke.
- Gainontzeko sariak ezingo dira gehitu. Hau da, kirolariek sailkapenean egindako postuaren arabera eta mailakako sari bakarra jaso dezakete.

14. artikulua

Dortsalak jasotzea.

Dortsalen banaketa Getarian, Udaletxe ondoan, egingo da:

Irailak 27, ostirala: 17:00etatik 20:00etara.

Irailak 28, larunbata: 10:00etatik 16:00etara

15. artikulua

Debekuak eta murrizketak.

Antolakuntzarenak ez diren motordun ibilgailuak edota bizikletak debekatuta daude. Probaren jarraipena egingo duten antolakuntzaren ibilgailu motordunek eta bizikletek agerian identifikatzeko seinale bat eramango dute. Segurtasunagatik, debekatuta dago helmugara izena eman gabe dauden adin txikikoekin sartzeara. Arauak betetzen ez dituzten parte hartzaileak deskalifikatuak izan daitezke.

16. artikulua

Datu pertsonalen lagapena

III. Euskal Kosta Krosean izena ematerakoan, parte hartzaileek euren baimena ematen dute beren datu pertsonalak, hirugarren erakunde batzuen bitartez, automatikoki erabiliak izateko kiroleko, sustapeneko edota helburu komertzialerako.

17. artikulua

Araudia onartzea

Parte hartzaileek araudi honen artikulua guztiak onartzen dituzte eta konpromisoa hartzen dute irteerari ez aurrea hartzeko eta, helmuga igaro aurretik, probaren ibilbide osoa egiteko.

Antolakuntzak probaren aurretik azterketa medikua egiteko gomendioa egiten die parte hartzaileei. Parte hartzaile bakoitzak onartzen du kirol aktibitateak eragin dezakeen arriskua.

Antolakuntzak ez du bere gain hartzen parte hartzaile bakoitzak bere buruari egin diezaioken kaltea proban parte hartuta, edota beste pertsona bati eragin diezaiokeena. Hirugarren pertsona batek eragindako kalteaz ere ez du kargu hartzen antolakuntzak.

Parte hartzaile guztiek, parte hartzearekin batera, araudia hau onartzen dute. Aurreikusi gabeko guztia IAFFren araudiaren bidez aztertua izango da.

Ibilbidea (rutometroa dokumentu honen amaieran)

Ibildearen zehaztasunak:

21,097 kilometroko maratoi erdia datorren irailaren 28an jokatuko da, 17:00etan hasita. Getariatik irtengo da, eta kostako N-634 errepidean izango du ibilbidea, Zumaia joan-etorria eginez, Getariatik igarota, Zarautzaino. Ondoren berriro Getariara moiatik, kale Nagustik igoaz proba amaituz.

Ibilbide osoan egongo dira anoa postuak probako parte hartzaileentzako. Segurtasuna bermatzeko hainbat boluntariok, moto gidarik, txirrindularik eta anbulantziak egingo dute lana Zumaian, Zarautzen eta Getarian.

Zirkuitua

Probaren irteera Getarian izango da, herriko frontoian. N-634 errepidetik Zumaiarako norabidea hartuko da. Zumaian, biribilgunera iritsi eta Zumaia Arraun Elkartearen egoitza ondotik Mendaro Marinela kalera eta ibaira doan parkea zeharkatuko da eta oinezkoen zubia pasako. Ondoren eskuinetara bidegorritik eta Amaia plaza inguratuko da. Alondigatik Erribera kalea gurutzatuko da eta Pantxita Etxezarreta kaletik aterako dira dira korrikalariak Zumaia. N-634tik Getaria zeharkatuko dute eta Zarautza iritsiko. Bertan, Parrokia aurrean kale Nagusira sartuko dira, San Frantzisko kalerarte eta bertatik, Nafarroa kalera, berriro ere Getariaruntz abiatzeko.

Getariarako bueltan, Malkorbe hondartzarako bidegurutzea hartuko da eta portura jaitsiko. Bertan, Artzape eta elizarako aldaia hartu ezkerretara eta kale Nagusian gora amaituko da proba, udaletxe alboan helmugara irteteko.

21,097 kilometroak zehaztuta:

Irteera: 17:00etan, Getarian, frontoian.

Helmuga: Getariako kale Nagusian, udaletxe alboan

Distancia: 21,097 kilometro. Ibilbide osoa egiteko denbora muga: 2 ordu eta 30 minutu.

Lehen kilometroa: Irteera Getariako bihotzean, udaletxeko plaza eta frontoi artean. Berehalakoa Kostako errepidetik (N-634) joango dira korrikariak Zumaia. Inguru paregabea eta ederra da.

20 kilometroko ibilbide magikoa: Kosta

1. eta 20. kilometro arteko ibilbidea Kostako errepidean (N-634) izango da, Zumaia eta Zarautz arteko joan-etorria eginez.

Agian, Euskal Kosta Krosa nabarmentzen duen ezaugarrietako bat hori da: ibilbide zoragarria. Itsasertzetik egiten da ibilbide ia osoa, Zumaia eta Zarautz arteko itsaslabarretatik igarotzen da, itsasoaren eta zelaia berdeen ikuspegi ederrarekin gozatzeko aukera eskainiz.

Ibilbideaz nabarmendu beharreko beste ezaugarri bat 3 herriak barne-barnetik igarotzen dituela da.

5. eta 7. kilometroen artean Zumaia herria.

16. kilometroan barrena Zarautz herria.

Kostako errepidetik (N-634) joango dira korrikariak Zumaia, Getariatik igarota. Inguru paregabea eta ederra da.

Azken kilometroa: Emozioa eta probaren bukaera Getarian.

Kostako errepideko ibilbidea egin ondoren, korrikalaria Getariako bihotzean murgilduko da. Hondartza albotik Getariako porturaino jeitsi eta bertatik, itsasotik lurreratu balira bezala, korrikalariak kale Nagusian gora egingo dute.

Udalerritik polit honen kaleak lagun izango ditu helmugara bidean. Kaleetan bildutako jendearen animoekin egingo, korrikalariak ia ahaleginik gabe egingo ditu helmugarako azken metroak.

Korrikalariarentzat zerbitzuak

Anoa postuak

Jatekoarekin eta edatekoarekin hainbat postu jarriko dira ibilbide osoan zehar:

Ibilbidean lau anoa postu: 6,5-12,5-16,5 kilometroetan eta helmugan.

Helmugan anoa gune bat.

Korrikalariarentzat aldagelak eta dutxak

Antolakuntzak gune bat atonduko korrikalariarentzat proba bukatu ondoren, lasai aldatzeko eta dutxatzeko.

- Getariako udal kiroldegia (Sahatasaga kalea, 13)

Kontsigna

Arropak eta motxilak gordetzeko kontsigna.

15:00etatik 20:00etara bitartean kontsignarako leku bat izango da Getariako Berdura Plazan. Bertan korrikalariak arropa eta motxilak uzteko aukera izango dute.

Poltsak itxita utzi beharko dira, eta dortsalarekin batera emango den zinta itsasgarria jarrita. Motxilak utzitako tokian jaso beharko dira. Dortsala erakutsi gabe ezingo da motxilarik jaso.

Asistentzia medikuaren zerbitzua

Antolakuntzak osasun eta larrialdietako zerbitzua jarriko du, Gurutze Gorriaren osasun zerbitzuaren bidez.

Ikusleentzat eta korrikalariarentzat animazioa

Probaren aurretik eta bitartean musika animazioa eta beste hainbat ekitaldi izango dira giroa animatzeko.

Izen-emateak

<http://www.kronoak.com/eu>

<https://euskalkostakrosa.eus/izenemateak/>

Izen-ematearen egutegia eta prezioak:

Izen-ematea:

Abuztuaren 31 bitartean, 20 euro.

Irailaren 1etik irailaren 24ra (23:59 h) bitartean, 25 euro.

Behin izen-ematea eginda ezingo da itzultzeko eskatu ezta titularra aldatzeko ere.

Dortsalen banaketa

Dortsalen banaketa Getarian, Udaletxe ondoan, egingo da:

Irailak 27, ostirala: 17:00etatik 20:00etara.

Irailak 28, larunbata: 10:00etatik 16:00etara

Korrikalari bakoitzak bere dortsala bakarrik jaso ahal izango du. Besteren baten dortsala jasotzeko, bila joan ezin duen korrikalariaren NAN aurkeztu beharko da.

Korrikalari bakoitzak poltsa bat jasoko du, barruan honako gauzak dituen:

- Txipdun dortsala
- Kateorratzak
- Kontsignan motxila uzteko itsasgarria
- Oparia

SAILKAPENEN ETA SARIEN ANTOLAKETA

Sailkapen orokor bat egingo da gizonezkoak eta emakumezkoak zehaztuta.

- **Absolutu orokorra.**

Sari banaketa Getariako udaletxeko plazan egingo da, 19:30etik aurrera.

Sailkapen orokor absolutua, gizonezkoak eta emakumezkoak.

Absolutuak, gizonezkoak eta emakumezkoak.

Sariak: gizonezkoak eta emakumezkoak:

1. Txapela, 300 euro eta saria.
2. 200 euro eta saria
3. 100 euro eta saria

Honako kategorietan ere sariak banatuko dira:

-Junior mailan (16-19 urte): Lehen sailkatua, gizonezkoa eta emakumezkoa.

-Beteranoen mailan (40 urtetik gorakoak): Lehen sailkatua, gizonezkoa eta emakumezkoa.

Bailarako udalerrietako lehen korrikalariak.

- Udalerrri bakoitzeko lehen gizonezkoa eta lehen emakumezkoa (Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio eta Aia)

EUSKAL KOSTA KROSA PROGRAMA

IRAILAK 27 ostirala	Ekintza	Eremua	Oharrak
17:00-20:00	Dortsalen banaketa	Udaletxeko plaza	korrikalariak
IRAILAK 28 larunbata	Ekintza	Eremua	Oharrak
10:00-16:00	Dortsalen banaketa	Udaletxeko plaza	korrikalariak
17:00	Euskal Kosta Krosa lasterketa irteera	Herriko frontoia	
18:00	Euskal Kosta Krosa: helmugaratzea	Kale Nagusia, Udaletxeko Plaza.	
19:30	Sari banaketa	Udaletxeko plaza	
19:00	Parrilla eta elkargunea	Herriko frontoia	korrikalariak

III. EUSKAL KOSTA KROSA					ERRITMOAK	
	LEKUA*HERRIA	BIDEA	KM KARRERA	KM PARTZIALAK	3 MIN/KM	7 MIN/KM
1	GETARIA FRONTOIA	N-634	0	0	17,00	17,00
2	BIRIBILGUNEA ZUMAIA SARRERA	N-634	5,4	5,4	17,16	17,39
3	ZUMAIA ARRAUN KLUBA OINEZKO ZUBIA	ZUMAIA KALEA	5,9	0,5	17,18	17,42
4	TXOMIN AGIRRE-AMAIA PLAZA-ALONDIGA-ERRIBERA	ZUMAIA KALEA	6,6	0,7	17,20	17,47
5	BIRIBILGUNEA ZUMAIA SARRERA	ZUMAIA KALEA	7,1	0,5	17,21	17,51
6	GETARIA	N-634	12,5	5,4	17,38	18,29
7	ZARAUTZ PARROKI AURREA BIDEGURUTZEA GI-2633	N-634	16,1	3,6	17,48	18,55
8	KALE NAGUSIA 1 ZARAUTZ	GI-2633	16,15	0,05	17,48	18,55
9	KALE NAGUSIA/SAN FRANTZISKO/NAFARROA	ZARAUTZ KALEA	16,55	0,4	17,50	18,58
10	NAFARROA 16/NAFARROA 1	N-634	16,8	0,25	17,50	19,00
11	MALKORBERAKO BIDEGURUTZEA, PORTURA GETARIA	N-634	20,1	3,3	18,00	19,24
12	GETARIAKO PORTUA, ARTZAPERA IGOERA	PORTUA KALEA	20,7	0,6	18,02	19,28
13	HELMUGA KALE NAGUSIA GETARIA	KALE NAGUSIA	21,1	0,4	18,03	19,30

III.EUSKAL KOSTA KROSA (GETARIA-ZUMAIA-GETARIA-ZARAUTZ-GETARIA)

2019/09/28

